

Ehizari buruzko 2026-2027ko arauak



Ehiza-barrutiak



Ehiza-postuak



J. Ardaiz



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Ehizari buruzko 2026-2027eko arauak

195E/2026 Foru Agindua, ekainaren 23koa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak emana, zeinaren bidez onesten baita 2026-2027 denboraldirako ehiza debekualdiei buruzko xedapen orokorra.

Foru agindu horrek, oro har, ehiza barrutietarako ehizaldiak finkatzen ditu; horrek, dena dela, ez du zertan eraginik izan onetsitako Ehiza Antolatzeko Planetan ageri diren beste ehiza-jarduera batzuetan. Nafarroako Ehizari buruzko 17/2005 Foru Legetik eratoritzen ahal diren ehiza modalitate berriak aurreikutsita egonen dira Ehiza Antolatzeko Plan onetsian, edo Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak espresuki baimendu beharko ditu.

Ehiza-espezieak

Nafarroan, 2026-2027 denboraldian, Nafarroan zilegi izanen da espezie hauek ehizatzea

Hegaztiak

- Antzara hankagorritza (*Anser anser*)
- Basahatea (*Anas platyrhynchos*)
- Zertzeta arrunta (*Anas crecca*)
- Eper gorria (*Alectoris rufa*)
- Galeperra (*Coturnix coturnix*)
- Faisaia (*Phasianus colchicus*)
- Kopetazuri arrunta (*Fulica atra*)
- Hegabera (*Vanellus vanellus*)
- Oilagorra (*Scolopax rusticola*)
- Istingor arrunta (*Gallinago gallinago*)
- Pagausoa (*Columba palumbus*)
- Txoloma (*Columba oenas*)
- Usapal arrunta (*Streptopelia turtur*)
- Birigarro arrunta (*Turdus philomelos*)
- Birigarro txikia (*Turdus iliacus*)
- Durdula (*Turdus pilaris*)
- Garraztarroa (*Turdus viscivorus*)
- Mika arrunta (*Pica pica*)
- Belea (*Corvus corone*)

Ugaztunak

- Erbia (*Lepus spp.*)
- Untxia (*Oryctolagus cuniculus*)
- Azeria (*Vulpes vulpes*)
- Basurdea (*Sus scrofa*)
- Oreina (*Cervus elaphus*)
- Adarzabala (*Dama dama*)
- Orkatza (*Capreolus capreolus*)

Ordutegia

Oro har, ehizan aritzeko ordutegia eguzkia sortu baino ordu bat lehenago hasiko da, eta sartu eta ordu batera bukatuko. Almanakatik hartuko dira sortzearen eta sartzearen orduak.

Adi, ehiztari

Eraztuna duen hegaztiren bat aurkitzen baduzu edo lepokoa nahiz belarritakoa duen basurdea botatzen baduzu, abisu eman lehenbailehen Basozainak - Ingurumena Zaintzeko Taldeari.

Esker mila zure laguntzarengatik.

EHIZTARIAK HONAKO HAUEK ERAMAN BEHARKO DITU GAINEAN
- Nortasun agiri nazionala
- Ehiza-lizentzia, indarrean dagoena -
- Arma-lizentzia eta jabetza-gida -
- Nahitaezko ehiza-asegurua -
- Ehiza-barrutian ehizatze baimena -
Behar izatera, baita honako hauek ere
- Kupoa kontrolatzeko txartelak -
- Besokoak -
- Zigilu digital elektronikoa -

Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzua

Ehiza Kudeaketarako Atala

Ehiza Atalaren tel.: 848 426 733 caza@navarra.es

Ehiza-lizentzia berritzeko:

- licenciascaza@navarra.es
- <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/ehiza-lizentzia-eskatzea-eta-berritzea>

■ Ehizakien babesak

Oro har, debeku da animaliak harrapatzeko metodo edo bitarteko hauek baliatzea

- 1.- Lakioak edo amuak eta mota guztietako tranpa eta zepoak, saihsak edo zepo txikiak, sareak edo baleztak, zuloak, nasak eta eper-sareak barne.
- 2.- Arbolatxoa, hagaxkak, lika-adarrak, barraka edo parany delakoa eta likarekin erabiltzen diren tresna edo metodo guztiak.
- 3.- Babestutako espezieetako animalia biziak edo bezatuak erabiltzea apeu gisa, edo bestelako animaliak, hilik nahiz bizirik, itsuturik edo elbarriturik, eta mota guztietako apeu elektriko edo mekanikoak, grabazioak barne, usategietako ehiza tradizioan erabiltzen diren uso biziak izan ezik.
- 4.- Animaliak elektrokutatu edo moteltzeko aparatuak.
- 5.- Faroak, ispiluak eta bestelako argi artifizial edo itsugarriak.
- 6.- Sare mota guztiak edo sareen bidez funtzionatzen duten tramankuluak, hala nola sare eraigarriak, laino-sare edo sare bertikalak eta kanoi-sareak, bai eta sare japoniarrek eta txalupa italiarra ere.
- 7.- Karnata mota guztiak, keak, gasak edo arrastoa uzten duten substantziak, pozoiak, substantzia moteltzaileak, sorgogarrak, erakargarriak edo uxagarriak, bai eta lehergaiak ere.
- 8.- Kargagailuan bi kartutxo baino gehiago eduki ditzaketen arma erdiautomatiko edo automatikoak, aire konprimatuko armak, eratzun-perkusioa duten 22 kalibreko erripleak, isilgailua edo gauez tiro egiteko bisorea duten armak, substantzia moteltzaileak injektatzeko jaurtigaia jaurtitzeko dituzten armak eta baleztak.
- 9.- Hudoak.
- 10.- Mota guztietako aireontzi eta uretako ontzietatik edo lurreko ibilgailu motordunetatik tiro egitea.
- 11.- Balinak, postak edo lehertzen diren balak, eta jaurtigaia manipulaturik duten mota guztietako balak. Kartutxoetan sartzen diren jaurtigaia postatzat hartuko dira 2,5 gramo edo gehiagoko pisua badute.
- 12.- Ahate-kanoiak.
- 13.- Hezeguneetan berunezko perdigoak erabiltzea ehizarako, araudi aplikagarriaren arabera.
- 14.- Debekatua dago eperra apeu bidez botatzea.
- 15.- Debekatua dago inurri hegaldunak harrapatu, eduki edo merkaturatzea, baita beita gisa erabiltzea ere.

■ Ehiza-eremuak

1993ko abuztuaren 1etik aitzina, bakarrik ehiza-barrutietan egin daiteke ehizan eta debekatuta dago lurralde libreetan.

■ Ehiza prestatua

Ehiza Antolatzeko onetsitako Planetan ezarritako eremuetan eta uztailaren 6ko 11/2012 Foru Aginduan ezarritakoetan baizik ezin izanen da praktikatu. Foru agindu horren bidez, baimena ematen da faisaia jare uzteko. Eremu horiek erabiltzeko epea honako hau izanen da: 2026ko abuztuaren 15etik 2027ko otsailaren 28ra arte, , ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

■ Txakurrak trebatzeko eremua

Txakurrak trebatzeko eremuak, Ehiza Antolatzeko Planetan baimenduta daudenak, erabiltzen ahalko dira dagokion planean kasu bakoitzerako ezarrita dagoenari jarraikiz.

■ Hegazti migratzaileak

Hegan doazen hegazti migratzaileak ehizatze postuetan, Frantziako ehiza elkarteekin konpartitzekoetan, Frantzia dauden baldintza berberetan egin behar da ehiza udazkeneko migrazioan, baina bakar-bakarrik Nafarroan baimendutako espezieak harrapatzen ahal dira.

■ Usoak eta birigarroak ehizatze baimendutako postuak

- Tiro egiteko postuak, bai bakarrik bai ilaran daudenak, finkoak izanen dira eta mendilerroen tontorretan edo horien magalen goiko aldean egon beharko dute. Debekaturik dago eskopetekin batetik bestera ibiltzea eta armak zorrotatik kanpo izanda ehiza postuetatik at ibiltzea, ehiztaria postutik hurbil erori den usoa edo birigarroa jasotzera joaten den kasuetan izan ezik, kasu horietan arma deskargatua eraman beharko baitu.
- Debeku da usoak uxatzeko ezein bide erabiltzea: seinaleak, tiroak edo, usoen ibilbide arrunta desbideratzeko asmatutako beste edozein prozedura. Nolanahi ere, zilegi da legeari jarraituz ezarritako txaboletan, itsutu eta elbarritu gabeko apeuko uso biziak erabiliz usoak harrapatzea, betiere horrek usoari bere bidea utzarazten ez badio eta, horren ondorioz, legez paratutako beste postuetako ehiza galarazten ez badu.
- Usoak edo birigarroak ehizatze postu bat ez bada erabili ondoko ondoko hiru urtetan, hor aritzeko baimena galduko da.
- Pase-sasoian usoak botatzeko, eta birigarroak ehizatze baimena duen postu bakoitzean, gehienez ere hiru ehiztari egoten ahal dira aldi berean. Ehiztari bakoitzak eskopeta bakarra edukitzen ahalko du postuan.

- Tiro egiteko postuek, bai itxuragatik, bai erabilitako materia-lengatik, ongi eman behar dute paisaiarekin. Ehiza barrutia kudeatzeko arduradunaren eta aprobetxamenduaren titula-rren erantzukizuna da ingurua garbi edukitzea. Landa Gara-peneko eta Ingurumeneko Departamentuak, hala badagokio, legezko neurriak hartuko ditu baldintza horiek betetzen ez dituzten postuetan ehiza eragozteko.
- Uso migratzaileak edo birigarroak ehizatzeo baimendutako postu edo txabolak tokiz mugitzeko baimena Landa Garape-neko eta Ingurumeneko Departamentuak eman beharko du Ehiza Antolatzeo Planean.
- Postuak barrutiko administrazioak ezarritako arauetara jarraikiz aprobetxatuko dira.
- Postu bakoitza jarri beharko da beste postuen ohiko tirabide-tik kanpo. Postu batetik bestera gutxienez ere 50 metroko tartea egonen da.
- Postuen artean interferentziarik bada, zaharrenak izanen du lehentasuna. Lehentasuna duen postuaren eraginkortasuna gu-txitzen denean eta postuen titularren artean batera ehiza-tzeo adostasunik ez dagoenean esaten da interferentzia dagoela.

■ Ehizakiak

Ehizakiak etxera eraman baino lehen lumatzen edo larrutzen badira, burua eta hankak kendu gabe eduki behar dira, identi-fikatu ahal izateko.

■ Ehiza larriaren uxaldiak eta mendi-ehizaldiak

Behar bezala seinaleztatuko dira bide eta sarbideetan. Segurtasun neurri gisa, ehiztariek eta uxatzaileek kanpotik ikusgarritasun handiko txalekoak edo jantziak jantzi beharko dituzte, laranja kolorekoak, ahal bada, eta gutxienez bularral-dea eta bizkarraldea estaliko dituztenak. Era berean, gomen-datzen da buruko aski nabarmenak erabiltzeko. Eite handiko nekazaritzako laboreetan egiten diren uxaldietan, postuak goratuak egonen dira, lurraren gorabeherak aprobetxatuz, edo egitura berariazkoen gainean. Tiro egiteko postuen diseinuan eta kokaeran, hobetsiko dira animaliarri uxalekueetatik kanpo eta arma-lerroa pasatuta dagoenean tiro egiteko kokalekuak.

Baimenduta dauden txakurrak: debekatua dago heltze txakur-ken bidezko ehiza. Debekatua dago, uxaldietan edo mendi-ehizaldietan, honako txakur arraza hauek eta haien arteko mestizoak erabiltzea: dobatxakurra, bulldoga, pitbull, rottwei-lerra, boxerra, doberman eta Kanarietako heltze txakurra. Ehizaldietan, ohiko arrasto txakurrekin batera, gehienez, arraza hauetako edo haien hibridoetako bi txakur erabiltzen ahalko dira: alanoa eta mastina.

Beste txakur batzuk erabiltzen badira, bete beharko dira aben-duaren 23ko 50/1999 Legea eta martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua.

Txakurren jabeak eta/edo edukitzaileak izanen du txakurren inguruan indarrean dagoen legeria betetzeko erantzukizuna. Ehiztari bakoitzak su-arma edo arku bakar bat eramaten ahal-ko du.

Postuetan, uxaldietarako, gutxienez lau ehiztarik bildu behar dute.

■ Orkatze eta oreinendako zigiluak

Nahitaezkoa izanen da zigilu zenbakidunak erabiltzea, harrapa-tutako orein eta orkatzei paratzeko, dagokion Ehiza Antola-tzeo Planean ezarritako kupoen arabera.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak ema-nen ditu zigiluak, ehiza barrutia kudeatzeko arduradunak eska-tuta.

Ehizan ateratzen den bakoitzean, hil nahi diren animaliak adina zigilu eraman behar dira gutxienez. Animalia hil ondoren, ezin da handik mugitu harik eta zigilua paratu eta harrapaketa-ren eguna markatu arte. Uxaldietan edo mendi-ehizaldietan soilik, eta ehizaldiaren arduradunari jakinarazi ondoan animalia harra-patu dela, hura zigilurik gabe eramaten ahalgo da hurbilen dagoen mendiko pistaraino, eta bertan jarriko zaio zigilua. Hori ez da jarrai-ehizan aplikatuko.

Belaunburuko tendoiaren eta hankaren artean paratuko da zigilua; ondoren, itxi eta, erauziz, zein egunetan harrapatu den markatuko da. Adarrak dituzten animalien kasuan, zigilua erro-setaren gain-gainean paratuko da, baldin eta harrapatutako animalia aski handia bada (zigilu itxia adarretik ez ateratzeko adinakoa).

■ Ehiza xeheko zigilu eta txartelak

Eperraren, erbi iberiarraren, erbi europarraren, oilagorraren eta galeperraren aprobetxamendu egokia egiteko, ehiza barrutie-tako adjudikaziodunek zigilu edo txartel sistema bat ezarri beharko dute ehiza egun bakoitzean harrapatutakoak kontro-latzeo, ehizatzen diren unetik beretik. Usapal arruntaren kasuan, nahitaezkoa da ehiza-zigilu elektronikoa erabiltzea. Denboraldia amaitutakoan, adjudikaziodunak txartelak jaso, eta ehizatutako aleen guztizko kopurua idatzirik jaso beharko du Urteko Planean.

■ Ehizako kirol-txapelketak

Ehizako kirol txapelketak egiteko beharrezkoa izanen da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Basoen eta Ehiza Kudeaketaren Zerbitzuaren aldeko txostena, aurretik emana. Foru agindu honetan ezarritako kopuruak gainditzen ahalgo dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamen-tuak aldeztutako aurretik onetsitako ehizako kirol-txa-pelketetan. Nafarroako Ehiza Federazioak soilik antolatu ahal-ko ditu ehizako kirol txapelketak.

ESPEZIEIA	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	
Basurdea	15						28	
	*Basurdea, zelatan eta gaueko itxaronaldietan, 2026ko abuztuaren 1etik 2027ko uztailaren 31ra arte							
Adarزابala eta Oreina			12	Adarزابala, uxaldian eta mendi-ehizaldian			28	
	Oreina, jarrai-ehizan	13	4	12	Oreina, uxaldietan eta mendi-ehizaldietan		28	
Orkatza	15		Orkatza uxaldian, mendi-ehizaldian, zelatan eta jarrai-ehizan				28	
	* Orkatza, jarrai-ehizan, 2027ko apirilaren 1etik uztailaren 31ra arte							
	* Orkatza jarrai-ehizan harrapatzeko saiaketan, bi aldi hauetan: 2026-08-15 – 2027-02-28 eta 2027-04-01 – 2027-07-31						1 Jauzi-ehizan, galeperra harrapatzeko leku berberetan, 2026ko abuztuaren 15etik irailaren 13ra	31
Azeria	15 Uxaldian						28	
	* Ehiza Iarriaren uxaldia eta mendi-ehizakdia, 2026ko abuztuaren 15etik 2027ko otsailaren 28ra arte						1 Zelata-ehiza eta taldeka	28
Eperra	Eperra: gehieneko egun-kopurua, ehiza-barruti bakoitzean zehaztu beharrekoa			1			31	
Erbia		Erbi iberiarra: gehienez 2 ehiza-egun barrutiko		1	27			
Untxia				1			31	
Oilagorra			12				31	
Hegazti-urtarrak	15	Basahatea	13		1		31	
Usoa	Pagausoa, jauzia-ehizan	23 Jauzi-ehizan, galeperra hegaldian erremua	13	1 Baimendutako postu eta txaboletan, pagausoa eta txoloma	31			
		23 Jauzi-ehizan, iparraldean	13	Zuhaiztietatik kanpo	1	Jauzi-ehizan, pagausoa eta txoloma	31	
Birigarroa				Jauzi-ehizan	1		31	
				Birigarrendako postu finkoetatik	1		31	
				Uso postuetatik	1		31	
Galeperra	15	13	Iparraldean: zuhaiztietatik kanpo					
	15	13	Hegoaldean: Ehiza Antolatzeko Planetan baimendutako lekuetan soilik					
Usapala	23	13	Iparraldean: jauzi-ehizan, zuhaiztietatik kanpo	Baimendutako ehiza-barrutiak, zigilu digital elektronikodunak				
			Hegoaldean: galeperra jauzian eta usoa hegari					
Faisaia		Ehiza Antolatzeko Planen arabera	1	Askatzeak 2026eko irailaren 30etik 2027ko urtarrilaren 15era arte			31	
Mika eta belabeltza			Beste edozein espezie tako ehiza-garaietan					

■ Basurdea

Baimena ematen da basurdea ehizatzeko, 2026ko abuztuaren 15etik 2027ko otsailaren 28ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere, su armaz uxaldietan eta mendi-ehizaldietan, eta arkuz uxaldietan, mendi-ehizaldietan eta jarrai-ehizan.

2026ko abuztuaren 1etik 2027ko uztailaren 31ra bitarte, basurdea egunero ehizatzen ahalko da su armaz edo arkuz, zelatan eta gaueko itxaronaldietan. Atal honi dagozkion modalitateetan jarduteko eskualdeko Basozaintzari abisatu behar zaio 48 ordu lehenago.

Gaueko itxaronaldiak egiteko eta zelata-ehizan aritzeko, Ehiza Antolatzeko Planetan gaueko itxaronaldietarako baimendutako postuak erabiliko dira. Gaueko itxaronaldietan, segurtasun arrazoiak direla eta, baimena ematen da su armari edo arkuari lotutako linternak erabiltzeko, tiroa egin edo gezia bota aurre-aurreko unerako bakarrik. Eraginkortasun arrazoiak direla-eta, baimenduta dago substantzia usaintsuak erabiltzea, petrolioaren eratorriak ez badira, gehienez 10 cm x 10 cm-ko azaleran zabaldua.

Nekazaritzako laboreetan kalteak izateko arriskua dagoen ehiza barrutietan, uxaldian ehizatzen ahalko da Ehiza Antolatzeko Planetan adierazitako uxalekuetatik kanpo.

Orkatzen jarrai-ehizan basurdeei tiro egin ahal izan daie, ehiza barrutien titularrak horretarako baimena emanez gero.

■ Oreina

Baimena ematen da orein arrak ehizatzeko 2026ko irailaren 13tik urriaren 4ra arte, egunero, dagokion Ehiza Antolatzeko Planetan xedaturikoari jarraikiz. Horretarako, ehiztariak edo barrutiko ehizazainak 24 ordu lehenago abisatu beharko die eskualdeko basozainei, Guardia Zibileko Natura Babesteko Zerbitzuari eta Foruzaingoko Ingurumena Babesteko Brigadari, eta adieraziko die erabiliko den besokoak zer zenbaki duen, baita jarduketaren eremua ere.

Baimena ematen da 2026ko urriaren 12tik 2027ko otsailaren 29ra arte uxaldietan eta mendi-ehizaldietan ehizatzeko, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere, Ehiza Antolatzeko Planak ezarritako kopuruak gainditu gabe betiere. 2027ko martxoaren 15a baino lehen, erabilitako besokoen gordekinak eta erabili gabeak aurkeztu beharko dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko bulegoetan. Erabili gabeko besokoak eta erabilitakoen gordekinak itzultzen ez badira, hurrengo denboraldian ehiza larriaren aprobetxamenduak egitea debekatzen ahalko da.

■ Adarزابala

Baimena ematen da adarزابala uxaldietan eta mendi-ehizaldietan ehizatzeko, 2026ko urriaren 12tik 2027ko otsailaren 28ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

■ Orkatza

Ehiza Antolatzeko Planean zehaztutako kupoak bete beharko dira.

2027ko otsailaren 28ra arte erabilitako besokoen gordekinak, baita eme eta kumeen besoko erabili gabeak ere, 2027ko martxoaren 15a baino lehen aurkeztu beharko dira Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko bulegoetan. Udaberrian eta udan bakarkako ehizan aritzeko diren arrenak era berean aurkeztuko dira, 2027ko irailaren 1a baino lehen.

Erabili gabeko besokoak eta erabilitako gordekinak itzultzen ez badira, hurrengo denboraldian ehiza larriaren aprobetxamenduak egitea debekatzen ahalko da.

Uxaldiak eta mendi-ehizaldiak: 2026ko abuztuaren 15etik 2027ko otsailaren 28ra arte ehizatzen ahalko da, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

Jarrai-ehiza eta zelata-ehiza: modalitate horietan aritzen ahalko da 2026ko abuztuaren 15etik 2027ko otsailaren 28ra bitarte, asteko egun guztietan. 2027ko apirilaren 1etik uztailaren 31ra arte, egunero ehizatzen ahalko da, jarrai-ehizako modalitatean, Ehiza Antolatzeko Planeako kupoaren barnean sartu baina denboraldian ehizatu ez ziren orkatz arrak, baita baimenduriko modalitateetan otsailaren 28ra arte ehizatu gabeko orkatz arrak ere. Orobat, arrak, emeak eta kumeak hiltzen ahalko dira aldi horretan, zerbait barrutitan; hain zuzen, besoko neutroak esleiturik dituztenetan, kalteak izateko arriskua dela eta. Besoko horietan ez da zehazten aleen sexua eta adina.

Horretarako, ehiztariak 24 ordu lehenago abisatu beharko die eskualdeko basozainei, eta adieraziko die erabiliko den besokoak zer zenbaki duen, baita jarduketaren eremua ere. Ehiza-egun horietarako ehizazaina duten ehiza barrutietan, horrexek emanen die abisua eskualdeko basozainei, eta erabiliko den besokoaren zenbakia eta jarduketaren eremua jakinaraziko dizkie. Horrez gain, jarduera koordinatuko du eta bakarkako zelata-ehizan parte hartzen duten ehiztarien eguneroko kontrola eramanen du. Nekazaritzako laboreetan kalteak izateko arriskua dagoen ehiza barrutietan, uxaldian ehizatzen ahalko da Ehiza Antolatzeko Planean adierazitako uxalekueetatik kanpo.

■ Azeria

Jauzi-ehiza: galeperra debeku-erdiko aldiaren harrapatzen ahal den egun eta toki beretan ehizatzen ahalko da 2026ko azaroaren 1etik 2027ko urtarrilaren 31ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

Uxaldiko modalitateak: 2026ko abuztuaren 15etik 2027ko otsailaren 28ra arte ehizatzen ahalko da modalitate hau erabiliz, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere. Soilik azeria ehizatzeo uxaldietan, perdigoiez egin beharko zaio tiro, eta ehiztariak ikusgarritasun handiko txaleko edo jantziak jantzi beharko dituzte; laranja kolorekoak, ahal bada, eta gutxienez buللaraldearen eta bizkaraldearen goiko aldeak estaliko dituztenak. Ikusgarritasun handiko txanoa erabilitzea gomendatzen da, halaber.

Zelata-ehiza gordelekuen inguruan eta taldeak: 2026ko azaroaren 1etik 2027ko otsailaren 28ra arte ehizatzen ahalko da, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

Orkatzen jarrai-ehiza: azeriari balaz tiro egiten ahalko zaio orkatza bakarka ehizatu bitartean, 2026ko abuztuaren 15etik 2027ko otsailaren 28ra arte eta 2027ko apirilaren 1etik uztailaren 31ra arte.

Ehiza larriaren uxaldiak eta mendi-ehizaldiak: ehiza larriko modalitate haue-tan, balak erabiliz ehizatzen ahalko da azeria, 2026ko abuztuaren 15etik 2027ko otsailaren 28ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

Oro har, untxiek eragindako kalteen prebentziorako plan baimenduak dituzten ehiza barrutietan, eta ehizaldi orokorretik kanpo edo salbuespenezko metodoekin untxiak ehizatzeo baimena dutenetan, azeria arestian azaldutako modalitateetan ehizatzeo baimena ematen da, baina debekatu egiten dira espezie honen harrapakarien kontrolerako jarduketak, ehiza-barrutiaren titularrak behar bezala argudiatutako kasuetan salbu.

■ Eperra

Animalia hau ehizatzen ahalko da 2026ko azaroaren 1etik 2027ko urtarrilaren 28ra bitarte, igandeetan, eta Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan, 14:00ak arte.

Ehiza-barruti bakoitzerako gehieneko egun kopurua 195E/2026 Foru Aginduan ezarritako irizpideen arabera ezarriko da; edonola ere, 0 egunekoa izanen da 2026ko udaberrian ugaltzaile kopurua Ehiza Antolatzeko Planean ezarritako potentzialtasunaren % 50 baino txikiagoa den kasuetan. Ehiza-barruti bakoitzerako baimendutako gehieneko egun kopuruaren zerrenda Nafarroako Gobernuaren web-atarian argitaratuko da.

Ehiztari eta egun bakoitzeko gehieneko 2 eperren kupoa ezartzen da, eta taldeak ez dira inoiz izanen 3 ehiztari baino gehiagokoak.

Larreratzeko baimena ematen da, armarik gabe eta zuhaitzi eremueta-tik kanpo, 2026ko urriko larunbat eta igandeetan, pertsonako gehie-nez ere 4 arrasto-txakur erabiliz.

■ Erbia

Animalia hau ehizatzen ahalko da 2026ko azaroaren 1etik abenduaren 27ra bitarte, igandeetan, eta Espainiako, Nafarroako eta herriko jaigu-netan, 14:00ak arte

Erbi iberiarra

Barruti bakoitzean zenbat egunez ehizatzen ahal den erabakitzeo, aintzat hartuko dira Ehiza Antolatzeko Planean ezarritakoa, laginketak eta barruti bakoitzean ezarritako egutegia. Nolanahi ere, gehienez bi egunez ehizatzen ahalko da eskopetaz barruti bakoitzean.

Jauzi-ehiza: eskopetarekin, ehiztari eta egun bakoitzeko erbi bateko gehieneko kupoa ezartzen da.

Uxaldia: erbi bateko kupoa ezartzen da talde eta egun bakoitzeko. Erbia botatzeko taldeak ez dira inoiz hiru ehiztari baino gehiagokoak izanen.

Xarlangoz (erbi-txakurrez) egindako erbi ehiza (eskopetarik eta makilarik gabe, gehienez ere 2 xarlango askerekin pertsonako edo ehiza taldeko, beste 2 xarlango loturekin eta arrastoko usna bi zaku-rrekin), epe horren barnean, larunbatetan ere egiten ahal da, arestian adierazitako egunetan ez ezik. Kupoa erbi batekoa izanen da, gehie-nez, pertsonako edo ehiza taldeko, eta taldea gehienez ere 6 pertso-nek osatua.

Larreratzeko baimena ematen da, armarik gabe eta zuhaitzi eremueta-tik kanpo, 2026ko urriko larunbat eta igandeetan, pertsonako gehie-nez ere 4 arrasto-txakur erabiliz.

Erbi europarra

Barruti bakoitzean zenbat egunez ehizatzen ahal den erabakitzeo, aintzat hartuko dira Ehiza Antolatzeko Planean ezarritakoa, laginketak eta barruti bakoitzean ezarritako egutegia.

Arrasto txakurrekin ehizatzen ahalko da bakar-bakarrik. Uxaldietan, tal-deak gehienez ere 6 ehiztarikoak izanen dira. Pertsona edo koadrila bakoitzeko gehieneko kupoa, egun bakoitzeko, erbi batekoa izanen da. Baimena ematen da arrasto txakurrekin larreratzeko, armarik gabe, 2026ko iraileko, urriko, azaroko eta abenduko ostegun, larunbat eta igandeetan.

■ Untxia

Animalia hau ehizatzen ahalko da 2026ko azaroaren 1etik 2027ko urtarrilaren 31ra arte, ostegunetan, igandeetan eta Espainiako, Nafarroako eta tokiko jaiegunetan, Ehiza Antolatzeko Planaren arabera.

Ehiza Antolatzeko Planean horretarako ezarritako eremuetan 3 untxi larriko IKA (kilometroko ugartasun indizea) duten barrutietan, eremu horietan ehizatzen ahalko da, 2026ko abuztuaren 15etik irailaren 30era arte, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere. Horretarako, aldezturik Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan aurkeztu beharko dira laginketa bat, ehizazain batek egina eta sinatua, ehiza egin behar den egunak, eta ehizazainaren kontratazioa, udako ehiza egin behar den egunetarako dena. Ehizazainaren laguntza ezinbestekoa izanen da ehizaldietan.

■ Oilagorra

Animalia hau ehizatzen ahalko da 2026ko urriaren 12tik 2027ko urtarrilaren 31ra arte, egunero, egunsentian hasi eta ilundu baino ordu bate lehenagora arte, basoan, ohiko txintzarri funtzionala daramaten txakurrak erabiliz, non dauden jakiteko eta beste erabiltzaile batzuekin gerta daitezkeen istripuak saihesteko. Armarik eta detonatzailerik gabe larreratzeko baimena ematen da oilagorraren ehiza barrutietan, otsailera egun guztietan, betiere lumarako lau txakurrekin gehienez.

Ehiztari bakoitzak gehienez 3 ale harrapatzen ahalko ditu egunean. Debeku da oilagorra itxaronaldietan eta uharketan ehizatzea. Ezohiko hotz boladetan, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak deklaratzeko ahalko du horiek fortuna-egunak direla, eta horrela ehiza debekatu. Hedabideen bidez jakinarazi beharko du. 2026-2027 ehiza-denboraldian, debeku da oilagorra merkaturatzea.

Segurtasun neurri gisa, halako uxaldietan parte hartzen duten ehiztariak ikusgarritasun handiko txalekoak edo jantziak jantzi beharko dituzte, laranja kolorekoak, ahal bada, eta gutxienez bularraldearen eta bizkarraidearen goiko aldeak estaliko dituztenak. Ikusgarritasun handiko txanoa erabiltzea gomendatzen da, halaber.

■ Hegazti urtarak

Baimena ematen da **antzara hankagorritza, zertzeta arrunta, basahatea, kopetazuri arrunta, hegabera** eta **istingor arrunta** ehizatzeko 2026ko azaroaren 1etik 2027ko urtarrilaren 31ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

Basahatea ere ehizatzen ahalko da, 2026ko abuztuaren 15etik irailaren 13ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

Hegoaldean, aipatu epean, Ehiza Antolatzeko Planek baimendutako eremuetan bakarrik ehizatzen ahalko da.

■ Faisaia

Ehizatzen ahalko da 2026ko urriaren 1etik 2027ko urtarrilaren 31ra bitarte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere, 11/2012 Foru Aginduaren eta Ehiza Antolatzeko Planean ezarritakoari jarraikiz. Askatzeak foru agindu horren arabera egiten dira, 2026ko irailaren 30etik 2027ko urtarrilaren 15era bitartean.

■ Usoa

Pagauso eta **txoloma**: ehizatzen ahalko dira 2026ko urriaren 1etik abenduaren 31ra arte, baimendutako postu eta txaboletan, asteke egun guztietan. Jauzi-ehizan ehizatze baimena ematen da, baita, 2026ko azaroaren 1etik 2027ko urtarrilaren 31ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

Pagauso: hegoaldeko barrutietako galeper-guneetan eta iparraldeko zuhaitz eremuetatik kanpo, jauzi-ehiza egiten ahalko da 2026ko abuztuaren 23tik irailaren 13ra bitartean, ostegunetan, larunbatetan, igandeetan eta estatuko, foruko edo tokiko jaiegunetan.

Hegoaldeko barrutietan, udako egunetan ere ehizatzen ahalko da usoen postuetatik.

■ Birigarroa

Birigarro arrunta, garraztarroa, durdula eta birigarro txikia.

Baimena ematen da jauzi-ehiza egiteko 2026ko azaroaren 1etik 2027ko urtarrilaren 31ra arte, ostegun, larunbat eta igandeetan, baita Espainiako, Nafarroako eta herriko jaiegunetan ere.

2026ko azaroaren 1etik 2027ko urtarrilaren 31ra arte, birigarroa ehizatze postuetan ere ehizatzen ahalko da, asteke egun guztietan.

Uso migratzaileen postu baimenduetatik ere botatzen ahalko dira 2026ko urriaren 1etik abenduaren 31ra arte, usotarako baldintza bere-tan.

■ Galeperra

Nafarroako iparraldean ehizatzen ahalko da 2026ko abuztuaren 15etik irailaren 13ra arte, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan, ehiza barruti guztietan, baina zuhaiztietatik kanpo bakarrik.

Hegoaldean, 2026ko abuztuaren 15etik irailaren 13ra arte ehizatzen ahalko da, ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetan, Ehiza Antolatzeko Planetan ezarritako eremuen barnean.

Bestetik, eper gorriarentzako barruti bakoitzean baimendutako egun berberetan harrapatzen ahalko da galeperra.

Iparralderako zein hegoalderako gehieneko kupo bat ezartzen da: ehiztari bakoitzak, eguneko, 10 ale harrapatzen ahal ditu.

■ Usapala

Igandeetan ehizatzea baimentzen da, 2026ko abuztuaren 23tik irailaren 13ra. Hegoaldean, soilik galeperra ehizatze leku berberetan, jauzi-ehizan eta usoa hegan ehizatze postuetatik. Iparraldean, zuhaiztietatik kanpo, eta jauzi-ehizan. Iparralderako zein hegoalderako gehieneko kupo bat ezartzen da: ehiztari bakoitzak, eguneko, 2 ale harrapatzen ahal ditu. Nafarroako Gobernuaren web-atarian argitaratuko da baimendutako ehiza-barrutien zerrenda eta ehiza-barruti bakoitzeko gehieneko harrapaketa-kopurua. Usapal arruntaren kupoa esleitura duten ehiza-barrutiek nahitaez erabili beharko dute Ehiza Kudeaketarako Atalak horretarako ezartzen duen zigilu elektronikoa-ren sistema.

■ Mika eta belbeltza

Beste edozein espezieetako ehiza-garaietan, hauek ere ehizatzen ahalko dira.



Basozainak

Barrutia	Telefonoa	Helb.elek.
D1 Bidasoa	608 245 812	gmabidasoa@navarra.es
D2 Aezkoa - Kintoa	686 502 927	gmaaezkoa@navarra.es
D3 Erronkari - Zaraitzu	699 307 698	gmaroncal@navarra.es
D4 Sakana Mendialdea	679 996 810	gmasakana@navarra.es
D6 Lizarra 1	686 504 345	gmaestellanorte@navarra.es
D7 Iruñea	608 062 649	gmapamplona@navarra.es
D8 Agoitz	608 062 669	gmaaoiz@navarra.es
D9 Lizarra 2	608 062 639	gmaestellasur@navarra.es
D10 Tafalla - Zangoza	609 907 084	gmatafalla@navarra.es
D11 Tuteria	609 904 957	gmatudela@navarra.es
Ingurumena Zaintzeko zentrala 646 594 948 centralmedioambiente@navarra.es		
Foruzaingoa - Ingurumena: pfmambiente@navarra.es		
SEPRONA: na-cmd-pamplona-seprona@guardiacivil.org		